

arautegia

● 1. artikulua: AIZKARDIKO IBILALDIA

AIZKARDI Mendizale Elkarteak antolatutako zeharkaldi hau mendian egindako ibilbide herrikoa da, eta kirol- eta kultur-arloko helburuak ditu: mendizaletasuna bultzatzea eta Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz.

Partehartzea zabaltzeko asmoz, bi ibilbide prestatuko dira; bata 19. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria izango dena, eta bestea motzagoa, ibilbide erdikoia. Ibilbide luzean parte hartzeko 14 urte beteak izatea derrigorrezkoa da.

● 2. artikulua: ERANTZUKIZUNAK

Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendibilbide bat dela, eta kirol-jarduera horren arriskuak dituela. AIZKARDI Mendi Elkarteak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko egiten diote elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indeminazioak eskatzeari. Mendi-jarduera hau edo gainerakoak egiteko federatuta egotea gomendatzen da.

Elkartek jarduera hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

● 3. artikulua: IBILBIDEA

Aizkardiko 52. ibilaldia 2020ko martxoaren 29an egingo da, iteera eta helmuga Villabonan izango direlarik. Ibilbide luzeak 43 Km inguru ditu, Villabona (61m) - Komizar (200m) - Meaka (530m) - Belabieta (675m) - Ibingo Langa (611m) - Urdelar (857m) - Mugaga (685m) - San Lorentzo (803m) - Gorosmendi (665m) - Ipuliño (929m) - San Anton (499m) - Uliko Borda (850m) - Erroizpe (802m) - Berrobi (155m) - Uzturre (665m) - Artxiplagako Langa (566m) - Loatzo (635m) - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 2.600 metroko desnibel gehitua du, HAMAR ordu inguruan burutzen dena.

Luzera erdiko ibilbideak berriz, 23 Km inguruko luzera du, Villabona (61m) - Komizar (200m) - Meaka (530m) - Belabieta (675m) - Ibingo Langa (611m) - Urdelar (857m) - Mugaga (685m) - Olantzako Borda (656m) - Kiriko Harkaitza (536m) - Ibarrolako Erreka (435m) - Urdausurbilgo Borda (410m) - Kanal Handia (300m) - Mandabideta (240m) - Lastur Parkea (175m) - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 1100 metro inguruko desnibel gehitua du, SEI ordu inguruan burutzen dena.

● 4. artikulua: INFORMAZIOA / IZEN-EMATEA

Informazioa (Martxoaren 1etik aurrera) :

- Telefonoa (lanegunetan 20etatik 22etara): 649717182

- email : ibilaldia@aizkardi.com

Izen-ematea :

Izen-ematea DOAKOIA da, Martxoaren 1etik aurrera egin ahal izango da eta ondoren azaltzen diren bideak erabiliz egin daiteke:

- Interneteko helbidea: <http://www.zirkuitua.com>

- AIZKARDI Mendi Elkartearen lokalean, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara

- Ibilaldiaren egunean bertan.

Izena emateko behar diren datuak:

- federazioko lizentzia zenbakia, EHNA edo DNI,

- izena eta bi abizen,

- autatutako ibilbidea, federatuta zauden ala ez, eta klubaren izena ere bai.

Datu hauen jabeari bere datu pertsonalak Euskal Mendizale Federazioan dagokion fitxategian txertatuko direla jakinarazi zaio, eta Euskal Mendizale Federazioak parte hartzen duen kirol proben berri emateko ekintzetan erabili ahal izango dira, 52.Aizkardiko Ibilaldiko parte-hartzaileen zerrenda ere bertako web orrialdean azalduko delarik. Baimen hori baliogabetu nahi izanez gero, nahikoa da honako helbide honetara jotzea, ingurpena eta harrera egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz: Euskal Mendizale Federazioa . Paseo Errotaburu, 1-9º-3ª. 20018-Donostia-San Sebastián, edo Aizkardi Mendizale Elkarte. Apdo.75. 20150-Villabona.

● 5. artikulua: ZERBITZUAK

Elkartek lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezperan bertan lo egin nahi duten guzientzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek, antolakuntzari jakinarazi beharko diote telefonoz edo e-mailez.

Kontsigna zerbitzua izango da aldatzeko arropadun poltsa bat bertan utzi nahi duentzat

.Zeharkaldia bukatzean, parte-hartzaileek udal-dutxak erabili ahal izango dituzte, Villabonako Olaederra Kiroldegian.

● 6. artikulua: IRTEERA

Zeharkaldi luzea goizeko ZAZPIETAN hasiko da, eta motza ZORTZIETAN. Irteeran txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zenbakiarekin. Era mailakatuan emango da irteera, gutxi gorabehera 50 parte-hartzaile minutuko.

● 7. artikulua: KONTROLAK

Parte-hartzaileek goian azalduetako ibilbidea egin behar dute, eta derrigor igaro behar dute ezarritako kontroletatik. Kontrol horietan marxa-txartela erakutsi beharko dute, zigilua jartzeko. Kontrolak txartelean adierazitako gutxieneko eta gehieneko denborartean egongo dira zabalik.

● 8. artikulua: BALIZAK

Ibilbideak plastikozko zintzen bidez markatuta egongo dira. Antolaketa kideek azken parte-hartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoz eta ibilbideari amaiera emanez.

● 9. artikulua: HORNIDURA

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezko diren elikagai eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Antolaketa kideek ura eta gutxieneko hornidura jarriko dute Mugaga, Uliko Borda eta Berrobi kontroletan.

● 10. artikulua: ERRETIRATZEA

Ibilbidean zehar erretiratzeko diren parte-hartzaileek antolaketa kideei eman behar diete txartela, edo bestela 649.71.71.82 telefono-zenbakian jakinarazi. Erretiratzeko punturik egokienak San Anton eta Berrobi dira.

● 11. artikulua: BUKAERA

Ibilbidea egiten duten parte-hartzaileei, marxa gehienez HAMAR ORDU ETA ERDI (ibilaldi Luzea) eta ZAZPI (ibilaldi Motza) orduren buruan egin duela ziurtatzen duen marxa-txartela erakutsiz gero, diploma banatuko zaie helmugan.

Arratsaldeko BOSTERDIETAN, beti bezala, mendiko materiala zozketatuko da proba amaitu duten eta bertan aurkitzen diren parte-hartzaileen artean

52. aizkardiko ibilaldia

2020 Martxoak 29

IBILALDI LUZEA

Luzera 43 Km

Desnibela 2600 m

Iraupena 10:00 ordu

Irteera Ordua 7:00 etan

IBILALDI MOTZA

Luzera 23 Km

Desnibela 1100 m


Iraupena 6 ordu

Irteera Ordua ... 8:00 etan



19.Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria


**MENDI LASTERKETA EZ DENEZ ...
IBIL ZAITEZ OINEZ !!!**



www.aizkardi.com

Km	LEKUA	ALT	DESNIB. +	DESNIB. -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	61	0	0	7:00	7:00	7:10
1,0	OTSABI	110	57	0	7:08	7:12	7:23
1,9	KOMIZAR	200	138	0	7:16	7:23	7:36
4,0	ARIZMENDI	492	438	4	7:39	7:54	8:12
5,0	MEAKAko GURUTZEA	530	494	22	7:48	8:06	8:26
6,0	BELABIETA	675	640	22	7:59	8:21	8:43
6,6	IBINGO LANGA	611	640	87	8:03	8:27	8:50
8,1	BELABIETATXIKI	744	777	92	8:18	8:47	9:12
8,9	URDELAR	857	881	92	8:26	8:58	9:25
9,9	K-2 : MUGAGA-SALDA	685	898	272	8:35	9:11	9:38
11,0	SAN LORENTZO	803	1022	277	8:47	9:27	9:57
12,0	GOROSMENDI	665	1030	422	8:55	9:40	10:10
12,8	OLDIZGAIN	795	1160	424	9:05	9:52	10:28
13,9	IPULIÑO	929	1315	443	9:17	10:08	10:46
17,2	SAN ANTON Mendatea	499	1318	878	9:45	10:48	11:27
21,9	K-3 : ULiko BORDA	698	1580	940	10:26	11:46	12:32
25,6	ARBURUko HARKAITZA	780	1729	1013	10:58	12:31	13:23
26,2	GAZTELUko HARKAITZA	755	1746	1048	11:03	12:38	13:31
27,0	ALMITXURI	808	1798	1054	11:11	12:48	13:42
27,7	ERROIZPE	802	1836	1092	11:16	12:57	13:51
31,9	K-4 : BERROBI	152	1862	1764	11:53	13:51	14:46
34,3	MAITA GOIKOA Baseria	450	2187	1799	12:20	14:26	15:31
37,0	UZTURRE	661	2458	1855	12:49	15:03	16:18
38,7	ARTXUPIAGAko LANGA	566	2502	1955	13:03	15:24	16:39
39,5	LOATZO	635	2580	2003	11:11	15:34	16:51
43,0	K-5 : VILLABONA	61	2600	2600	13:42	16:20	17:30

IBILBIDE LUZEA



IBILBIDE MOTZA

Km	LEKUA	ALT	DESNIB +	DESNIB -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	61	0	0	8:00	8:00	8:10
1,0	OTSABI	110	57	0	8:10	8:13	8:26
1,9	KOMIZAR	200	138	0	8:18	8:24	8:45
4,0	ARIZMENDI	492	438	4	8:44	8:58	9:33
5,0	MEAKAko GURUTZEA	530	494	22	8:54	9:11	9:50
6,0	BELABIETA	675	640	22	9:07	9:28	10:14
6,6	IBINGO LANGA	611	640	87	9:11	9:34	10:21
8,1	BELABIETATXIKI	744	777	92	9:27	9:55	10:49
8,9	URDELAR	857	881	92	9:36	10:06	11:05
9,9	K-2 : MUGAGA-SALDA	685	898	272	9:46	10:19	11:21
13,2	OLANTZAko BORDA	655	967	370	10:15	10:57	12:09
14,4	KIRIKIko HARKAITZA	536	973	495	10:26	11:12	12:27
14,9	IBARROLAko ERREKA	439	973	592	10:30	11:17	12:33
15,4	URDAUSURBILgo BORDA	422	973	609	10:34	11:23	12:41
16,2	KANAL HANDIA	295	981	744	10:42	11:33	12:53
18,5	K-3 : DEPOSITOA	290	1019	787	11:02	12:00	13:27
20,4	LASTUR PARKEA	175	1038	921	11:18	12:21	13:54
21,9	ARRIETA BASERRIA	170	1068	952	11:32	12:39	14:15
23,0	K-4 : VILLABONA	61	1065	1065	11:45	13:00	14:30